



AUZO-EZTABAIDAGUNEA ETXABAKOITZ

2022-05-11

NICASIO LANDA IKASTETXE PUBLIKOA

HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO ALORRA
AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA



TXOSTENAREN EDUKIA

SARRERA: DATU OROKORRAK	2
ONGIETORRIA.....	2
AURKEZPENA: ENRIQUE MAYA.....	2
PARTE HARTZEA: CRISTINA MARTINEZ DAWE, AUZKOKO ZINEGOTZIA.....	4
GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK	5
AMAIERA	14
ERANSKINA: AZGAZKIAK.....	14



SARRERA: DATU OROKORRAK

Data: 2022ko maiatzaren 11n, asteazkenarekin

Ordua: 18:30 – 20:00

Tokia: Nicasio Landa ikastetxe publikoa

Udal-ordezkariek: Enrique Maya, Iruñeko alkatea. Cristina Martínez Dawe, auzoko zinegotzia.

Beste zinegotzi batzuk: Endika Alonso, Joxe Abaurrea (EH BILDU); Patxi Leoz (Geroa Bai); Juan Jose Echeverria, Fermín Alonso (Navarra Suma); Fernando Sesma (Ciudadanos)

Udal Alorretako zuzendaritzak eta teknikariak: Conchi Mateo, Komunitate Garapeneko eta Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaria

Parte-hartzaile kopurua: 33 lagun (14 gizon, 19 emakume)

Moderatzaileak: José Manuel Santana, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendaria

ONGIETORRIA

José Manuel Santana Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendariak topaketari hasiera eman zion mahaia osatzen zutenak aurkeztu eta gero. Amaitzeko, eztabaidagunearen egitura orokorra azaldu eta gogora ekarri zituen parte hartzeko askotariko bideak.

ENRIQUE MAYA ALKATEAREN AURKEZPENA

Berlaratuei (aretoan zeuden herritarrei, zinegotzietan eta udal-langileei) ongietorria eta eskerrak eman eta gero, Enrique Maya alkateak Etxabakoitzen une horretan abian zeuden edo etorkizunean egingen ziren jarduketara garrantzitsuenak aurkeztu eta azaldu zituen:

- Etxabakoitzeko **Udalez gairako Eraginaren Plan Sektoriala (PSIS)**, trenbide-begizta desagertzeari lotua. Plan horren prozesua azkartu da; PSIS plana onartu zen hasiera



batean, eta urbanizazio-proiektuaren birpartzelazioa jarraian; aldi batez geldirik egon zen, eta, orain, berriz aktibatu da Trenaren Patzuergoaren buru den Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eskutik. Berriz aktibatuta, partaidetza-prozesu publikoa irekiko da PSISeko aldaketak tramitatzeko. Aldaketa horiek merkataritza-azalera murriztea eta etxebizitzaren kopurua handitzea xede dute. Gainera, bi txosten idatzi dira, bata ikusteko plan hori gelditzeak zein ondorio ekonomiko ekarriko lizkiokeen administrazioari (berrogeita hamar milioi euro inguru) eta bestea Huntsman enpresarekin zer gertatzen den ikusteko. Azken txosten horrek azaltzen du, hitzarmen zahar batek eraisketaren ondorioz berreskuratutako dirua berriro Nafarroan inbertitzea agintzen zuela, baina aipatutako hitzarmena iraungi da, eta beraz, ezein instalakuntzak desagertu egin beharko du hirigintzako jarduketa berri batean.

Auzoan ezinegona egonen da Planarekin gertatuko denari buruz eta ordezeko bizitokiekin gertatuko denari buruz. Ordezko bizitokiei dagokienez, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko ordenantza lege berriei egokitu beharko litzaieke, baina Udalak jarduketa honetan ordezeko bizitokien ordenantza on bat ezarri ahal izatea nahi du.

- **Urdanoz etxe-multzoan** dauden hogeitaz hamar etxebizitza horietatik 17 birgaitu dira eta hiru gelditzen dira. Birgaitzeko Bulegoan lanean ari dira, gelditzen diren horietan obrak egiten ahal diren ikusteko. Gainera, kontuan hartubehar da gaur egun birgaitzeko dirulaguntzak garai batekoak baino hobeak direla.
- **Frontoia** 2019an eraiki zen, auzotarren eskariari erantzunez. Lanaren kostua 43.000 eurokoa izan zen.
- **Baratze ilegalak kentzea**, toki publikoa eta pribatua hartzen ari baitziren. Toki hauetan zuhaitz berriak sartu dira.
- **Aisialdi-baratzeak**. Auzotarrak ez daude erabat ados nolakoa izan den prozesu hau; izan ere, auzotik kanpoko askok baratzeetara sartzeko aukera izan dute eta estalpearen gunea ez zaio herritarren erabilerari ireki. Udalak ezin du mugatu baratzeak auzokoek bakarrik kudeatzea, hiriko biztanle guztiek baitute horiek erabiltzeko eskubidea; egin daitekeena da gertutasun irizpideak ezartzea esleipen-prozesuan.



- **Etxabakoitzeko Kirol Elkartearen kirol-pista.** Gaur egun kluba bolada txarra ari da pasatzen. Udala zenbait aldiz bildu da entitate horrekin eta hura mantendu eta iraunarazteko erabaki irmoa dago. Hala, kirol-pista bat egikaritzen ari dira, lurrak direla eta zenbait lege-eragozpeni aurre egin ondoren, etab.; azkenik, pista lur publikoetan dago eta Udalak parte bat finantzatzen du (zortziehun mila euro). Gainera, igogailuen aldetik sarrera bat egin zaio, erakunde horren aspaldiko eskaria baita.
- **Garbiketa automatikoko komunak,** parrokiaren ondoan eta aisialdi-baratzeetatik gertu. Ehun eta zortzi mila euro kostatu da.
- Gobernu-taldeak **Nicasio Landa ikastetxeko gimnasioa** berritzea onetsi du, berrehun eta hirurogei mila euro baino gehiagoan. Berrikuntzak barne hartuko du estalkia aldatzea, kanpoko arotzeria, zoladura, etab. Egun obra lizitazio-fasean dago eta udan egitea da aurreikuspena.
- Haurren Prebentzio Taldea ordezkatu egin da, eta programa publikoa sortu da horretarako, **CoWorkkids**. Etxabakoitzen hirurogeita bat haur artatu dira ikasturtean, udako kanpaldian berrogei hurrek hartu zuten parte, eta boluntario-sarea hogeitaz lagunek osatzen dute, zeinek era guztietako jarduerak garatu baitituzte: eskola-laguntza, sormen-laborategia, askari osasungarria, etab.
- **Auzoko Unitatea** Nicasio Landa ikastetxe publikoan dago orain.

Gai horien azalpen orokorraren ondoren, Mayak hitza eman dio Cristina Martinez auzoko zinegotziari.

CRISTINA MARTINEZ DAWÉ AUZOKO ZINEGOTZIAREN PARTE-HARTZEA



Etxabakoitzeko zinegotziak bere burua aurkeztu zuen lehen aldiz auzo-eztabaidagune batean, eta bertaratuak animatu zituen berarekin harremanetan jartzera, horretarako prestatutako telefonoaren zein helbide elektronikoaren bidez.

Ondoren, Martínezek 010ean eta Decide.com parte-hartzeko webgunean jasotako bi parte-hartze irakurri zituen. *Lehenengoa* auzoko kirol-eremuen beharrari buruzkoa zen; horregatik Ipar Etxabakoitzen gimnasio bat paratzea eskatzen zuen. Halaber, eskatzen zuen Sagrado Corazón ikastetxeko patioa irekitzea kirol-jardueretarako. Parte-hartze horri erantzunez, positiboki baloratu zen atari zabaleko gimnasio bat ezartzea, dagokion alorrera bideratu zen, eta aintzat hartuko da hurrengo aurrekontuei begira. Sagrado Corazón ikastetxeko patioa irekitzeari buruz, Udalak ez du horretarako eskumenik, ez baita udal-eraikina.

Aurrez jasotako *bigarren* parte-hartzea Ipar Etxabakoitzeko eremuak egokitzearen beharrari buruzkoa da, karraskariak ez daitezen ugaritu, zeinak, gainera, garajeetan sartzen baitira. Proposamena Osasuneko Alorrera eraman zen eta inguruko arratoiak hil ziren. Gainera, dagokion alorrak egiaztapenak eginen ditu ez dadin berriz ere gertatu.

GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendariak hartu zuen hitza bloke horretako arauak azaltzeko; bederatzik hartu zuten parte aurrez aurre, eta batek online:

Auzotarra	<p>PSIS planari buruzko informazio ofiziala eskatu zuen, jasotzen dena hedabideen bidez jasotzen baitzen. Hainbat galdera egin zituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zenbat denbora daukagu proiektu hau bukatuta egoteko? - Tarte horretan zer gertatuko da auzoarekin? Adineko asko bizi den auzoa da eta ez dago zerbitzurik (banketxea, merkataritza...) - Zein ordenantza erabiliko da ordezeko bizitokien kasuan? 2001ekoa edo besteren bat? <p>Xehetasun guztiak ezagutzearen garrantzia azpimarratu zuen, esan zuenez plana</p>



	<p>iragarri zenetik 17 urte igaro baitziren erantzunik gabe.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Era berean, esan zuten hedabideek PSISaren hiru alternatiba iragarri zituztela eta ez zekiela alternatiba horietakoren batean etxeak eraistetik libratzen zituenen bat zegoen. - Interesa adierazi zuten eta galdetu zuten nola gauzatuko zen hedabideetan iragarri zen herritarren partaidetza. - Eskatu zuten alkatearen hitzetan zeuden inkoherentzia batzuk argitzeko tren geltokiak PSISarekin duen edo ez duen loturari buruz. <p>Amaitzeko iragarri zuten luze gabe mahai baterako deia egin nahi dutela alderdi politikoak biltzeko, PSISaren inguruko jarrerak alderatzeko eta guztiaren berri eman diezaieten.</p>
<p>Udala</p>	<p>Parte-hartzea hasi zuten honako erantzun eta azalpenak emanez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Abiadura handiaren patzuergoa hainbat entitatek osatzen dute, haien artean, Iruñeko Udalaren aldetik, udalbatza osatzen duten partidu alderdi bakoitzeko zenbait ordezkari daude. - Xedea da PSIS planaren aldaketa agintaldi honetan burutzea. Hori da Patzuergotik jakinarazi zitzaizen xedea. Adierazi zuten profil teknikoa duten figura berri batzuk gehitu zirela Partzuergora, hura bultzatzeko xedez, eta beraz, badagoela hura gauzatzeko benetako asmoa. Orain parte-hartze fasean dago, eta ekarpenak egin daitezke, ekainaren 24a arte. Mahai gainean duten egutegia zehaztu zuten. - Epeei buruz, luzeak direla aipatu zuten eta Lezkairuko adibidea aipatu zuten du, zeinak 6 urte inguru hartu baitzituen. - Ordezko bizitokiei buruz esan zuten berak topaketa asko izan zituela hirigintzako gerentea zelarik, eta zalantza asko argitu zirela horren inguruan, baina gehitu du bilera horiek berriz egin behar liratekeela berriro hitz egin eta argitzeko. Baina behin eta berriz esan zuten PSISa Nafarroako Gobernuaren ardura dela eta Iruñeko Udalak Patzuergoko kide den neurrian parte hartzen ahal duela. Aipatu zuten halaber Patzuergora eramanen duen ideia: Iruñeko Udala izan dadila auzotarrekin hitz egiteko arduraduna, haren lurretan baitaude PSISak planteatzen dituen ordezko bizitoki gehienek lurrak.



	<ul style="list-style-type: none"> - Bitartean zer gertatzen da auzoarekin? galderari erantzuteko, alkateak esan zuen urte luzez egon direla zain, eta oraindik badagoen arazo handietako bat Inquinasa lantegia dela. Eta indartu zuen ideia da auzoak etorkizun txarra duela lantegia toki horretan dagoen bitartean, eta PSISak konponduko duela alde egin dezan kalte-ordainak ordaintzea aurreikusten baita. - Aipatu zuen Udalak ordezeko bizitokien ordenantza bat onartuko duela, eta auzoan bertan egiten ahalko direla. - Hiru alternatiben inguruko galderari buruz. Alternatibak batez ere kudeaketari buruzkoak dira. - PSISarekiko loturari edo loturarik ezari buruz. Lehenik argitu zuen lotura protokolo bat zela non esaten baitzen Nafarroako Gobernuak tren geltoki berria eginen zuela ADIFek plan honen eremuan dituen lurren truke. Orain, Gobernuak eginen luke geltoki eta trenbide berria eta ez litzateke beharrezkoa izanen protokolo hori. ADIF bere eskubideekin geratuko litzateke eta Gobernuak ez litzateke tartean sartuko. Egin zuen irakurketa da horrek plana gauzatzea errazten duela. - Prest agertu zen auzoarekin bilerak egin eta zalantza guztiak argitzeko. Patzuergoari proposa dakioke eta haren ustez ez da arazorik izanen.
<p style="text-align: center;">Auzotarra</p>	<p>Hainbat galdera eta ekarpen egin nahi zituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontatu zuen komenigarria zela auzotarrei berriz jakinaraztea nola erabili edukiontzi berriak, goizean goiz edukiontzien ondoan, eta zehatzago Urdanoz etxe-multzoko 2. zenbakian, arratoi eta saguak aurkitzen baititu edukiontzietan egokiro utzi ez den zaborra jaten. Uste zuen aurreko sistema errazagoa zela eta berri hau arazo asko ari dela sortzen. - Ipar Etxabakoitzeko igogailuari buruz, tronadura guztiak altxatuta daudela eta hainbat lagun erori zirela esan zuen. - Mañeru gunean ez zekien zein lan egiten ari ziren. - Urdanoz etxe-multzoaren inguruko parkeei buruz, ez zekien ea pribatuak edo publikoak ziren, baina uste zuen garbitu behar direla eta egiten diren erabilerak mugatu, bazkariak egiten direlako. Esan zuen



	<p>gainera edukiontziz beteta daudela, eta erdi bazterrean utzitako autoz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Igeritokiei buruz, aipatu zuen asko ezin zirela sartu oso garestiak direlako. - Haurrei dagokienez, haiendako jarduerak daudela ikusten zuen, baina jarduera horiek larunbat eta jaiegunetan ere egitea eskatu zuen. - Igogailua garbitzea. - Baratzeari buruz, gogor saiatzen ari den jendea dagoela ikusten zuen eta haren ustez oso triste da gero produktuak lapurtzen dituzten jendea egotea. Zaintza handiagoa izateko ideia bota zuen, baina ez bakarrik poliziarena, auzotar guztien artekoa baizik.
<p style="text-align: center;">Udala</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Edukiontziei buruz, sistema berria ez zebilela eta ez zela beharrezkoa partekatzen du. - Igogailuaren arazoei buruz, garbiketari eta tronaduren arazoari buruz, kontuan hartu eta berrikusiko zuten. - Mañeru izeneko guneaz, balioa ematen ari zitzaien. Hau da, obrek eragindako hondakinak balorizatzeko gune bat zen. Beste gune batzuetan egin zen Iruñean eta orain hor egiten ari ziren. Jarduera honek arazoak sortuko balitu aztertu eta baloratuko zen. - Ezin da kalean janaririk presta eta eginez gero, beharrezko neurriak hartuko dira. Ez zekien gune publikoa edo pribatua den, baina erabilera publikokoa da. - Igerilekuei buruz, haren ustez ona zen mantentzea. Arazoa salneurria balitz, aukerak azter litezke. - Larunbat eta jaiegunetako gazteendako jarduerari buruz, proposamenaren berri emanen zuen eta ideia ontzat eman zuen.
<p style="text-align: center;">Auzotarra</p>	<p>Parte hartzea hasi zuen esanez maiz deitzen zuela 010 zenbakira eta esan zuen arreta bikaina zela, baina kexak konpontzeko Udaleko alorretara iristen direnean ez zuela erantzunik jasotzen edo emandakoak oso txarrak izan zirela.</p> <p>Hau esan eta gero, hainbat kontu aipatu zituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Teodoro Ochoa de Alda kalean haur-parke bat dagoela esan zuen, eta bertako iturria ez zebilela duela hiru urte inguruz geroztik. Horren berri



	<p>eman zuen, baina ez da konpondu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Parke horren ondoan dagoen berdeguneari dagokionez zeharo lehortuta dago. - Parke horretatik Barañaingo mugaraino doan pasealekuan, kilometro bat inguru, ez dago komun bat ere. - Argiztapena ez da egokia, zuhaitzak hazi eta farolak azpitik geratu baitira. - Hormaren ondoan patxaran-landare asko dago eta arriskutsuak dira arantzengatik. - Zoladura berrikusi beharko litzateke, belar asko baitago eta arriskutsua baita oinezkoendako eta txirrindulariendako. - Igogailura eramaten duen pasabideak gaineratik ibiltzerakoan zarata handia egiten duela esan zuen eta inguruko auzotarrak oso gogaituta egon behar zutela. - Urdanoz etxe-multzoko igogailuari buruz aurreko auzotarrak esandakoa berretsi zuen: tronadura altxatuta zegoen. - Aipatu zuen Teodoro Ochoa kalearen 5. zenbakiaren ondoan oinezkoen pasabidearen seinalea biratuta dagoela eta nahasgarria dela. - Teodoro Ochoa de Alda kalearen 13. eta 11. zenbakien artean hiru farola aldatu ziren ageriko arrazoirik gabe, eta eman zioten erantzuna izan zen hiriko beste tokiren baterako behar zituztela. - Iritsiko dira noizbait bizikleta elektrikoak auzora? - Adinekoendako gimnasio bat paratzea eskatu zuen eta Teodoro Ochoa de Alda kalea eta Barañaingo mugartean jartzea iradoki zuen. - Aipatzen zuen belarra mozten dutenean, ertzak ez zituztela mozten. - Galtzadaren garbiketa ez da egokia - Ez zekien Udaleko norbaitek kontrolatzen zituen zoladura-lanak, bere ustez ez direlako egokiro egiten.
Udala	Planteatutako guztiari erantzuteko egin dituen iradokizun guztiak idatzi dituen papera emateko eskatzen dio, horiek dagokien alorretara eramatea errazteko.



<p>Auzotarra</p>	<p>Hasteko PSISari bi ohar egin nahi zizkiola esan zuen: bata da oso garrantzitsutzat jotzen duela eraistea aurreikusita dauden etxeak zeintzuk diren galderari erantzutea, horrek ezinegon handia sortzen duelako auzotarren artean; eta bestetik, lantegiaren gaia bere ustez, ea joanen den ala ez, ea lurrak egokiak izanen diren ala ez, dena erabaki politikoei dagokie, orain aurreikusitako etxebizitzaren kopurua 11.000ra igo delako.</p> <p>Behin hausnarketa eta galdera horiek egin eta gero, adinekoen lokalari buruz hitz egin zuen. Gogorarazi zuen ordezkatzeko duen auzotarren elkarteak lau urte zeramatzala lokala kudeatzen, hasieran Caixa eta CAN Fundazioaren diru-partida batekin eta Udalak lokala lagatuta, baina orain egoera kezkarri batean zeudela, ez kide faltagatik, baizik eta diru faltagatik. Dirulaguntza izenduna eman zuten Nafarroako Gobernuak, baina oraindik ez zuten kobratu eta ez zuten lortzen Udalaren zein Nafarroako Gobernuaren burokrasia-izapide guztiak gainditzea lokalak aurrera egiteko.</p> <p>Bestalde, ikastetxeari dagokionez ez zuen ulertzen patioan zein gimnasioan egin ziren inbertsioak, 20 ikasle bakarrik ditu eta. Uste zuen ikastetxea izugarritzko borondate politiko eza ari zela jasaten eta galdetu zuen zein asmo zuten Udalak zein Nafarroako Gobernuak. Beste erabilera bat ematea proposatu zuen, behintzat zati batean. Planteatu zuen, esaterako, hizkuntza eskolako toki faltari irtenbidea izaten ahal zela.</p> <p>Era berean, planteatu zuen, kexa moduan, elkarteak auzoan bi jarduera egiteko ikastetxeko bi areto erabiltzeagatik Udalak kobratu egiten diela.</p> <p>CoWorkkids programari buruz, aipatu zuen erabaki politikoa izan zela, programa hori abiatu arte lan hori egiten zuten elkarteak, Etxabakoitz Bizirik izenekoak, 20 urte zeramala lan oso ona egiten, eta bere ustez, Udalak bere laguntza kenduta elkarteak egiten zuten kohesiorako elementu hori gabe utzi du auzoa. Gehitu zuen programa berria, Udalak zifretan bakarrik aipatu arren, ez zela funtzionatzen ari aurreko elkarteak egiten zuten lan hori falta zitzaielako, zeinek lortu baitzuen beste nazionalitate batzuetako neska-mutil askok auzokoak izatearen sentimendua edukitzea. Kexu zen gainera, udan, lan gehien egiten ahal zutenean, programa berriak ia ez duelako jarduerarik.</p> <p>Aurtengo kulturako dirulaguntzei dagokienez, esan zuen, beherakada handia</p>
-------------------------	---



	<p>egon dela eta horrek kalte handia eragin diola elkarte-mugimenduari. Ulertzen zuen Udala bera ezin dela auzoetako behar guztiak asetzera iritsi eta horregatik daudela boluntarioak dituzten elkarteak, baina diruz lagundu gabe ezin dela gehiago egin.</p> <p>Baratzeei dagokienez, esan zuen urte eta erdi inguru aritu zirela Udalarekin hizketan eta ez zitzaiela inoiz ere esan enkantean aterako zirenik, eta orain auzoak dituen berrogeita zortzi baratzetatik lau bakarrik direla auzokoak. Ideia zen baratze horiek auzoko adinekoek landu ahal izatea, ez bakarrik aisialdirako, baina bizirauteko ere, pentsioak oso baxuak direlako askotan.</p>
<p>Udala</p>	<p>Galdera guztiak erantzuten hasi zen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eraitsiko diren etxebizitzak aurreko planean eraistea aurreikusita zeuden berberak dira, baina orain plana aldaketa-fasean dago, beraz, partzuergoa orain mahai gainean dauden proposamenak aztertzen ari da, baina egia da talde teknikoak oso zail ikusten duela eraikin horiek mantentzea. - Adinekoen lokalari buruz, Udalak aztertuko du; izan ere, orokorrean ez da dirulaguntza izendunak hau da, elkarte jakin bati, ematearen aldekoa. Baina aztertuko da. - Ikastetxeari buruz, aipatu zuen berak, talde politiko bezala, ez duela ezer desager dadin inolako borondate politikorik. Hirigintzari dagokionez, Hezkuntzarekin hitz egin beharko da eta ikusi zein bideragarritasun duen. Instalazioei beste erabilera batzuk emateko aprobetxatu ahal izatearen proposamen zehatzari buruz, aztertuko da. - Prebentzio-zerbitzuei buruz, aipatu zuen garai batean baloratu egin zela sistema publiko bat sortzea lehen prebentziotik egiten zena kudeatzeko, eta horregatik uste dela erabaki politikoa dela. Ez beste arrazoi batzuegatik. - Kulturako aurrekontuaren beherakadaren inguruan, esan zuen ez zela horretaz jabetu, aurrekontuak luzatuta baitaude, baina bai gertatzen ahal dela eskari gehiago egotea eta horiei erantzuteko aurrekontu bera edukitzea. Udalean aztertu eta baloratuko da. - Baratzeei buruz, esan zuten juridikokiezinezkoa dela baratze horiek auzo honetakoendako edo bestekoendako izatea.



<p>Auzotarra</p>	<p>Parte-hartzea hasi zuen obra-hondakindegari edo obretako hondakinak balorizatzeko guneari buruz hitz egiten, eta haserre ageri zen, ez bakarrik auzoan egiten ari direlako, baita egiten ari diren tokiagatik ere, etxebizitza kooperatibaren aurrean bertan. Eragozpen izugarriak sortzen ditu goizeko 8etatik zarata handia egiten dutelako eta horrek ez du uzten leihoak ireki ahal izatea edo ohitura batzuk normaltasunez egin ahal izatea. Eskatzen du lan hori Iruñeko beste toki batzuetara eramatea edo etxebizitzetatik urrun dauden beste lur batzuetara.</p>
<p>Udala</p>	<p>Aipatu zuen horrelako guneak beste auzo batzuetan ere egon direla, Lezkairun kasu. Baina aztertuko zela irtenbide bat emateko.</p>
<p>Auzotarra</p>	<p>Esan zuen eraisketei buruz jakin beharra duela ea bere etxea botako duten ala ez. Jakiteko beharra azpimarratu zuen eta pentsatzen zuela ez zela hainbesteko ahalegina instituzioek informazio hori ematea.</p> <p>Bestalde, esan zuen garai batean planari alegazio batzuk aurkeztu zizkiola eta ez zekiela orain parte hartzeko beste epe bat irekita zegoenik. Galdetu zuen ea berriz aurkeztu behar zituen garai hartan egin zituen alegazioak edo orduan aurkeztearekin nahikoa ote zen</p>
<p>Udala</p>	<p>Berriz aipatu zuen onartutako plan bat dagoela, eta eraikin horiek antolamenduz kanpo daudela, beraz, eraitsiko direla.</p> <p>Une honetan, partzuergoan epe bat ireki da kontu jakin batzuetan plana aldatzeko; garrantzitsuenak ziren merkataritza-gune handiendako azalera murriztea eta etxebizitzei gehiago ematea eta kudeaketa erraztea. Esan zuen horiek zirela lantzen ari ziren gaiak, eta, gehitu zuen plan guztiek, legez, herritarren partaidetzarako epe bat eskatzen dutela; beraz, ulertzen dela alegazio guztiak aurkeztu behar direla iraganean aurkeztu badira ere. Berriz ere aipatu zuen Udalak bere burua aurkeztuko diola partzuergoari auzotarren solaskide izateko. Indarrean dagoen planaren egutegia partekatzea ere eskaini zuen, interesdunak uneoro informatuta egon zitezen.</p>
<p>Auzotarra</p>	<p>Parte-hartzean aipatu zuen garai batean parke bat egin zela 7. zenbakiaren parean, parke hori Udalarena dela eta hori horrela mantentze-lanak egin</p>



	beharko lituzkeela, baina auzotarrak egiten ari direla garbiketa-lanak. Aipatu zuen ere ez dagoela iturririk ezta eserlekurik ere
Udala	Oharra jaso eta aztertuko zen
Auzotarra	Prebentzio-taldeei buruz zehaztu nahi zuen bere ustez hartutako erabaki politikoarekin egin zena auzoko babes eta prebentzioa kentzea izan zela. Auzoan bizi direnek badakite zer den COworkids programa berria eta auzoari egiten dioten ekarpena, oso txikia, eta jakin ere badakite Etxabakoitz Bizirik elkartetik egin zen lan eta ekarpen guztia. Esan zuen bere asmoa hori adieraztea besterik ez zela.
Udala	Ez zuen erantzun
Online partehartzea	PSIS hiri-planari buruz, honako galdera hauek egin zituen: <ul style="list-style-type: none"> - Etorkizuneko etxebizitza-multzoen garaierak Iruñean (Lezkairun, Erripagañan...) eraiki diren auzo berrien lerro berriari jarraituko diote? - Plana berrikusiko bada, kontuan har daiteke eraikinen eta kaleen eskala egungo auzoarekin bat hirigintza atsegin eta gizatiarragoa egiteko?
Udala	Erantzun zuen galdera plan aldaketaren eztabaidaren erdian dagoela.
Auzotarra	Parte-hartzea hasi zuen eztabaidagunea eskertuz eta kexatuz ezin izan ziolako ia entzun mahaian alkatearekin batera zegoen auzoko zinegotziari. Esan zuen ere, nahiz eta bertan zenbait auzi landu ziren, oraindik askoz ere gehiago zeudela lantzeke, eta eskatzen zuen Udala auzora gehiago hurbiltzea, hura bezalako saio ireki gehiago egitea, nahiz eta beste izen bat eman, eta auzoko zinegotziak bere lana egitea eta auzora etortzea kontu horiek denak jasotzera eta laguntzera. Gehitu zuen auzoan paratu ziren eztabaidaguneko informazio-kartelak handik bi egunetara kendu zituztela garbiketa-brigadakoek, eta eskatu zuen egun gehiagoz mantentzea jende gehiagorengana iristeko.
Udala	Cristina Martínez Dawe zinegotziak tonu lasaian erantzun zuen alkatea bertan dagoenez interesgarriagoa dela hark erantzutea.



	Bere burua eskaini zien auzotarrei arreta emateko, bere posta elektronikoaren bidez, telefonoz edo auzora jaitsi eta auzi guztiei buruz hitz egiteko.
--	---

AMAIERA

Alkateak saioa itxi zuen bertaratuei bertaratu izana eskertuz. Konpromisoa hartu zuen parte-hartze bakoitzean atera ziren auzi guztiak dagozkien alorretara eramateko eta ondoren auzoko zinegotziaren bidez hartzen ziren erabakien berri emateko auzoari.

PSISaren inguruan gogorarazi zuen partzuergoaren eta auzotarren arteko solaskide izateko konpromisoa. Aipatu zuen lantalde iraunkorrago bat egiteko ideia, aurrera egin eta aurrerapauso guztien informazioa denbora errealean edukitzeko.

ERANSKINA: ARGAZKIAK

